

# Francis, 40. urtemuga

Aitzindariak, mugarriak eta zebrabidea

Imanol Miner Aristizabal



Iztieta auzoa ezagututa, gaur egun, kosta egiten zaigu pentsatzea orain berrogei urte, egun anbulatorioa dagoen atzeko kalean bi dantzaleku eta hiru prostituzio-etxe egon zitezkeenik eta are gehiago kostatzen zaigu irudikatzea, trabestitutako pertsona bat auzoan, batera eta bestera ibil zitekeenik. Baina halaxe zen, horrelako osagaiak ere biltzen zituen ibaiaren eta orduko errepide nagusiaren artean aurreko hamarkadetan eraiki zen auzoak, mazedonia paregabea osatuz penintsulako bazter desberdinetatik bezala Euskal Herriko txoko ugariatik herrira lanera eta bizimodu hobego baten bila etorritako bizilagunekin.

Francis bezala ezagutzen dugun Vicente Vadillo Santamaría bera ere Lopera izeneko Jaengo (Andaluzia) herri txiki batetik etorri zen bere senideekin, beste asko bezala, lanera eta bizitzera. Iztieta auzoan zuen bizilekua eta Altza eta Trintxerpe aldean egiten omen zuen lan, garaiko hedabideen arabera, trabesti moduan aktuatuz. Hogeita hamabi urte zituen

ekainak 9ko larunbat hartan, lanetik bueltan zetorrela auzoko Apolo dantzalekura sartu zenean, etxera erretiratu aurretik, zesuman azken tragoaren aitzakian.


Ekainaren 10eko igande goizaldeko seiak baino lehentxeago, dantzalekua ordurako itxita egon arren, bezero apur batzuk oraindik barruan jarraitzen zutela azaldu zen Antonio Caba Laguna polizia espainiarra, kalez jantzita. Nolabait sartzea lortu eta eskailerak jaitsita oraindik barruan zeuden bezeroen artera batu zen. Mozkor-mozkor eginda zetorren Apoloko arduradunak epaiketan egindako adierazpenaren arabera, tragurik ez ziola zerbitzatuko esan zionean, bere pistola aterata bi tiro ematearekin mehatxatu omen zuen. Euskal herritarrekin kokoteraino zegoela eta bat akabatu behar zuela esaka ari zela, haiengandik gertu barran zegoen Francisek orduan, ea zergatik ez zion berari disparatzen esan, eta ez bat eta ez bi, pistola berari zuzenduta begian tiroa jota bertan hil zuen.

Iturri ofizialen arabera berriz, bestela gertatu omen zen, orduko ABCren kronikak jasotzen duenez. Lekukoan adierazpenekin eta Poliziako inspektoreek bildutako informazioarekin osatutako bertsiorekin arabera, sesio eta liskarrik gabe aritu omen ziren hizketan polizia eta Francis, arma erakustea omen zen bere asmoa, ez tiro ematea, pistolak segurua jarrita zuela uste baitzuen poliziak epaiketan adierazi zuenez. Albiste beraren arabera, poliziak Euskal Herrian lau egun besterik ez omen zeramatzan zerbitzuan.

Bertan zehazki gertatu zena berre-raikitzeke ez dugu xehetasun askorik, batetik, dena oso azkar gertatu zelako, eta bestetik, bertan zeuden lekuko gehienek berehala ospa egin zutelako arazoak saihesteko. Beraz, garaiko prentsan irakur daitekeenarekin eta orduko lekuko apurrek kontatu zutenarekin dago osatuta goiko kontakizuna, egunen batean, epaiketa prozesuan jasotakoarekin kontrastatu edota osatu zain.

Biharamunean bertan, igandean, arratsaldeko 19:30ean Herriko plazan egindako batzarrean adostu zen, herriko tabernak itxi, Zumardiko dantzaldia bertan behera utzi eta zinema aretoak husteko gonbidapena egitea hilketagatik protestatzeko. Astelehenean berriz, arratsaldeko zortzitako batzarren ondoren manifestazio bat abiatu zen herriko kaleetan barrena Iztietaraino lehenik, Apolo dantzalekua zegoen lekuraino, eta Madalena kaleko poliziaren kuartelera ondoren. Poliziak istiluen aurkako materialez manifestazioa sakabanatzeari ez zion aski iritzi antza, eta udaletxean indarrez sartu zen, ke-potoak jaurti, bazterrak txikitu, jendea egurtu eta egiten ari zen udalbatzarra eten behar izateraino. Manifestariak ondoren, autobusak gurutzatuta, errepide nagusia moztuta jarraitu zuten protestan eta greba orokorra deitu zuten astearteko.





Astearte arratsaldeko 20:00etan, Donostiako Bulebarretik beste manifestazio bat antolatu zuen, ordurako Gipuzkoan ere bilerak egiten hasita zegoen EHGAMek (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua), Gipuzkoar hiriburuan lehenengoz, LGTBI mugimendua itzaletik argira ateraraziz.

### Aitzindariak eta mugarriak

Duela lau hamarkada, 1979ko ekainaren 10eko goizaldean gertatutako hilketa salatzeke antolatu ziren bilera, batzar, manifestazio eta mobilizazioetan herritar ugarik hartu zuen parte, garaiko irudiek erakusten diguten bezala, eta tartean, herriko zenbait lesbianek eta gayek lehen aldiz aurpegia erakutsiz, 'Hemen gaude eta ez gara ezkututzen!' oihukatu zuten plaza publikora atera eta bizi zuten errealitatearen gordina ahots gora salatzeke.

Herriko aitzindari haiek ordurako, 1977an Bizkaian sortua zen EHGAM taldearekin harremanetan zeuden eta Gipuzkoan ere hasita zeuden bilerak egiten, herrialdeko ordezkaritza antolatu asmoz. Denbora kontua zen gure herrialdean EHGAM plaza publikora ateratzea beraz, eta Francisen heriotza salatu beharrak, halabeharrez eta premia larriz egitea ekarri zuen.

Gurean aurrekaririk gabeko gertakari haiek eragin zuten Orereta/Errenteria Euskal Herriko nahiz Europa hego-mendebaldeko LGTBI mugimenduaren historiaren hastapeneko mugarri nagusietako bat izatea. Izan ere, eta nazioartera begiraturaz gero, mendebaldeko herrialdeetan hamar urte besterik ez ziren igaro AEBetako New York hirian Stonewalleko liskarrekin sexu askapenerako mugimendua abiatu zela eta inguru hauetara iristea ere, denbora kontua zen.

Auzotarren eta herritar anonimoen oroimenak eta EHGAMen bueltako kideenak eutsi zion hurrengo hamarkadetan Francisen hilketaren memoriari. 90. hamarkadaren amaieran egin zion EHGAMek omenaldia Iztietan bertan, Apolo dantzalekua zegoen tokian plaka bat jarritz, eta 2004ean udalarekin lankidetzan jarri zen oroitarria Patxikuko kanpa bezala ezagutzen dugun Txirrita Parkean. Hamar urte beranduago, 2014an ekin zitzaion 'Francis gogoan zaitugu' lelopean, urtero, Homofobiaren Aurkako Zebrabidea ortzadar banderaren koloreekin margotzeari, Francis trabestiaren omenez eta herriko lesbiana eta gay aitzindariari esker onez, auzolanean, arrabolak eskuan hartuta, herriko hainbat eragile eta erakunderen lankidetzatarteko.



Ekintza sinboliko, parte-hartzaile eta koloretsu hori sei urtez jarraian berritu izanak, Francisen memoria ahanzturatik berreskuratzea, herritarren imajinario kolektiboan leku bat egitea eta bere auzoan bertan eremu bat berresanguratzea ekarri du, mugarri berri bat ezarriz eta memoria berreskuratzeke molde berri bat geureganatuz. Eta ondorioz, horrek guztiak, udal administrazioak berak ere LGBTBI eremuan egin dezakeenaren gaineko kontzientzia hartzen hastea lagundu du, bide eder honi mugarri berri bat gehituz, aurten ezagutzera eman den ErreferenteEKIN lana burutzeko ardura bere egiteraino, hain zuzen ere Orereta/Errenteriako LGBTBI herritarren errealitateei buruzko lehen diagnostikoa.

Sei urte hauetan, Homofobiaren Aurkako Zebrabidea urtero berritzeko ariketak aukera eman digu bidelagun berriak topatzeko eta lekukotza berriak jasotzen hasteko, izan ere, arestian aipatutako iturrietatik haratago, ezer gutxi dakigu oraindik ere Vicente Vadillo Santamaríari buruz, esate baterako bere senide, lagun eta auzoei buruz. Ordea, Apolo dantzalekuari buruz, bertara joaten zen jendeari buruz, bertan sortzen zen giroari buruz, zerbait kontatzeko moduan gaude.

## Lekuak eta jendeak

Garai eta Apolo dantzalekua ezagutu zutenek aitortu digute orduko 'ospe txarreko jendeen alproja-zulo bat' zela, gaua edota parranda amaitzeko 'bizio-zulo' bat nahiago bada, zeinetan ohiko bezeroak ziren herriko eta inguruetako gautxoriez gain, Pasaiaiko kaian lurreratutako itsasgizonak, bidean zihoazen kamioilariak, auzoko prostituzio etxeetako sexu-langileak, droga saltzaileak, guardia zibilak eta bestelako poliziak. Denek aitortzen dute bertan festan egon izana, baina gutxi gehiago eta hori ere mingainetik tiraz gero.

Ordea, 2017ko antolaketa lanetan ari ginela, garai hartan auzoan eta dantzalekutik oso gertu bizi zen lekuko batek informazio paregabea eskaini zigun: hain zuzen ere, bera ume-kozkorra zela, Francisen hilketaren gertakaria etxean nola bizi izan zen. Kontakizuna berria zen, batetik, bizilagunen begirada eskaintzen zuelako, eta bestetik, orduko familia euskaldun baten begiradaren berri ere ematen zigulako. Azal ditzadan.

Bizilagun bezala, etxetik gertuko dantzalekuan, kalez jantzitako polizia batek pistola atera eta tiroz "neska gazte ilehori bat" hil zuela jakiteak eragin zuen ikararen berri ematen zigun, etxeko, gertuko nahiz herriko ezagunen bat hil ote zuten ardura alegia. Ahizpa edo arreba gaztea —eta festazalea— zutenek, esate baterako, asaldatuta erreakzionatu omen zuten igande goiz hartan, harik eta buruan zuten senidea ez zela baiezatu arte. Izan ere hasieran ez omen zen garbi egon hildakoa nor zen, neska gazte ilehori bat hil zutela zabaldu omen zen auzoan; orduak aurrera egin ahala argituko ziren xehetasunak.

Euskaldun —eta abertzale— bezala berriz, gertakariaren lekua Apolo dantzalekua izatea lotsagarri zitzaiera ere kontatu zigun, eta horrek, orduko euskaltzale eta abertzaleen

ikuspegi eta moralari buruz ere zerbait esaten digu. Lehentxeago esan dut hilketa gertatu zeneko lekuko apurrek berehala hanka egin zutela bertatik, lekuko bezala geratuz gero, auzibideetan bakarrik ez, etxekoei eta jendartean orokorrean azalpenak eman beharra eragingo zielako gero.

Diktaduraren ondorengo demokrazia-frankistarako urratsak egin zireneko urte ilunak ziren, Trantsizio bezala ezagutuagoak, besteak beste, giro politiko nahasia, talde armatu desberdinen jarduera, ilusio zapuztuak, krisi ekonomikoa eta heroina bezalako drogen zabaltzea ari ziren gertatzen aldi berean. Gizarte eta politika eraldaketak ziztu bizian gertatzen ari ziren garai hartan, debekualditik toleratuak izaten hastera igarotzeko bidean zihoan herri euskaldunaren eta abertzalearen iruditerian oraindik arrotz ziren jende, leku, praktika eta identitateen ustekabeko azaleratzea eragingo zuen luzera Francisen hilketak, eta gauzak nola diren, hamarkada batzuk geroago eskutik helduta doazela ikasi dugu, gure herriak elkar-ulermenean eta elkarbizitzan egiten ari den aurrerabidearen erakusgarri.

### **Zebrabidea elkargune**

Homofobiaren Aurkako Zebrabidea zerbait izan bada, izan ere, elkargunea da, eta ez Erdialdea eta Iztieta auzoa elkartzen dituelako bakarrik, azken sei urteotan, kolore, tamaina, izaera, identitate, adierazpide eta adin desberdineko pertsonen elkarrekin egin eta berri dutelako batez ere.

Bere abiapuntua, 2013ko abuztuaren 11n hasi zen, Errusiak Suediar hiriburuan, Stockholmen duen enbaxadaren aurrealdeko zebrabideko marrak ortzadar banderaren kolorez margotu zituztenean. 2014ko otsailean Neguko Olinpiar Jokoak Errusiako Soxin ospatzekoak ziren, eta hainbat hilabete lehenago, 2013an barrena,

Errusiak, Vladimir Putin estatuburuaren babesaz, sexu askapenaren aurkako hainbat lege homofobo onartu zituen, nazioartean kanpaina bat abiatu zelarik Errusiar estatuko erakunde eta agintarien homofobia salatzeko helburuarekin. Ekintza original hark sare sozialetan oihartzun dezentekoa izan zuenez, Saretuz Proiektuan herriko zebrabide batean gauza bera egin behar genuela proposatu zigun Txuss Alfonsok lehenik; hilabete batzuk beranduago berriz, Francisen hilketaren 35. urtemuga EHGAren nolabait landu behar genuela ohartarazi zigun Mikel Martinek ondoren, eta Iztieta-Ondartxoko Auzo Elkartearekin ados jarrita lotu ginen auzolanean zubigintzara. Alde desberdinen proposamenak uztartuta sortu zen beraz gure herriko Homofobiaren Aurkako Zebrabidea margotzeko ideia, eta Madalenen bezperetan egin zen lehen aldiz, 2014ko uztailaren 17an.

Hasieratik izan genuen garbi herritarrek euren eskuekin egin beharreko ekintza izango zela, egunen batean “nik ere hau egiten lagundu nuen”, “ni ere hemen izan nintzen arrabolarekin”, esanez, bere egin ahal izateko. Eta lehen urtetik jabetu ginen ekintza sinboliko horren birtualtasunaz, batetik, parte hartzen ari zen jendeak aurpegieta erakusten zuen pozagatik eta ilusioagatik, eta bestetik, adin eta esparru desberdineko jendea ari zelako arrabolarekin bere ekarpena egiten. Alegia, Francisen hilketa gertatu zenean, erlijio edota ideologiagatik urrun edota antipodetan egon zitezkeen jendea etorri zen ekintza sinboliko moduan parte hartzera, memoria berreskuratzeraz eta bere unean egin ezin zutena kitatzera eta eguneratzeraz.



Hasieratik izan genuen argi ere ekintza haren erdigunean euskara jarri behar genuela, orain ia lau hamarkada ez ezik, oraindik ere, LGTBI inguruetan erdarek nagusi izaten jarraitzen dutelako, eta hamarkada hauetan guztietan, nahi baino gehiagotan, portaera, adierazpen edota irain homofobikoak euskarari edota euskal kulturaren ingurumariari lotutako memoriak ere gure hizkuntzaren biziberritzearen aurka jokatzeko jarraitzen dutelako, kapazen, alegia geure burua LGTBIQ+ siglen baitan, beraz hetero-arauek kanpo, kokatzen dugun pertsonen espazio erreal eta birtualetan bizi garenon bihotz-mingainetan. Eta horregatik saiatu gara urtero herri euskalduneko kapazen erreferente bat ere gonbidatzen, bidean kalabazak ere jaso ditugula aitortzea dagokigun arren.

Orbaintzaile eta terapeutiko ere izan da beraz Homofobiaren Aurkako Zebra-bidearen bost urteko ibilbidea, sexu askapenerako borrokaren atzoko, gaurko eta biharko belaunaldien elkargune ere badenez. Aurtengoan gainera, Patxikuko kanpan zegoen oroitarria batu dugu lekura, bost urteko ziklo bati amaiera emanaz. Orain balorazioa egin eta etorkizunari begiratzea dago-kigu, Udalaren ErreferenteEKIN diagnostikoaren emaitzen argitan, pauso berriak ematen jarraitzeko.

**HOMOFOBIA EN SU PASO DE CEBRA CONTRA LA HOMOFOBIA**

**Francis' trabestiaren omenez eta herriko gay eta lesbiana aitzindariak esker onez**

**En homenaje al travesti "Francis" y en agradecimiento a las lesbianas y gays pioneros de la villa**

**11 ekainak**

**12:30** Droitarraren inaugurazioa  
Inauguración Monolito

**19:30** Niessen Zinema  
"Un hombre llamado flor de otoño"

**23:00** Zebra-bidea eta memoria kolorez berri-tuko ditugu quztion artean  
Volveremos a colorear el paso de cebra y la memoria

**URTEURRENA** aniversario

**Francis GOGOAN ZAITUGU**

**SARETUZ** proiektua

Izietako **GUREKIN** Auzo Elkarte

Errenteriako Udala